

Azken batean, lanbide betekizunak dauzkaten guraso askok ere osatzen duten hezkuntz-komunitatearen premien zerbitzura ikastegiak espazio balioanitz gisa erabiltzea litzateke kontua.

Bestela, azken premia horiek asetzeko beste zerbitzu komunitario eta osagarri batzuk beharko liriateke, eta horiek ere lehen aipatu diren Europako Batasunak Haurren Atentziorako Sareak osatutako kalitate estandarrak bete beharko litzukete.

3. Ondorioak eta proposamenak

- 3.1. Haurren premientzako atentzio zerbitzuek, egungo hezkuntz-sisteman ezarritako helburu pedagogikoak lortzeaz gain, gizartearen antolaketa berritik eratorritako famili eta lanbide arduren bateragarritasuna ere lortu behar dute.
- 3.2. Beraz, adin txikiko haurrentzat diseinatuko den hezkuntz-atentzioa beste zerbitzu komunitario batzuekin osatu behar da, ikastegietatik edo esperientzia berrietatik lan betekizunak dauzkaten gurasoen premiei erantzun diezaieten.
- 3.3. Haurrentzako azken zerbitzu mota horiek osagarriak izango direnak eskola komunitateko kideen famili eta lanbide arduren arteko bateragarritasun premia ikusten den hezkuntz-maila guztietara hedatu behar dira, eta, beraz, ez dute mugatu behar zero eta sei urte arteko haur-hezkuntzako hezkuntz-etapara bakarrik.
- 3.4. Haurren premiei eman beharreko atentzioari buruzko ikuspegi global hau iharduera estrategia zehatz guztietan eduki behar da kontuan, hau da, premien programazioan, giza baliabide eta materialen egokitzapenean, finantziaketa sistemetan, etabar.
- 3.5. Horrek, aldi berean, hurrekiko atentzioan interesa daukaten administrazio eta agente sozial guztien koordinazio eta ekintza bateratu bat eskatzen du. Izan ere, haur eskola sare bat sortzeko dagoen eskariari erantzuna ematen lehenengo hezkuntz-administrazioak izan behar badu ere, beste administrazio eskudunek eta gaian interesaturik dauden agente sozialek ere aportazio garrantzitsuak egin ditzakete eta behar dituzte, eta ez hezkuntzari dagokionean soilik, baizik eta batez ere oraindik behar bezala esploratu gabe dauden zerbitzu osagarrien alorrean.

7.5. OSTALARITZA ESTABLEZIMENDU PUBLIKOETAN IPI-NITAKO MUSIKA APARAILUEK SORTUTAKO KUTSADURA AKUSTIKOAREN KONTROLA

Erakunde honek Eusko Legebiltzarrari aurkeztu dizkion txostenetan, urtez urte ikusi da salaketa asko egiten direla hiriko iharduera sailkatuetan (normalean, bizitexetako beheko solairuetan dauden ostalaritza establezimenduetan batez

ere, hots, taberna, pub, disko-taberna, dantzaleku, eta abarretan) sortutako kutsadura akustikoagatik.

Salaketa horiek berdintsuak izan ohi dira; hau da, bizilagunek salatzen dute zaratak jasaten dituztela establezimendu publiko horien funtzionamendu okerragatik. Izan ere, leku horietan zarata handia sortzen da, eta horrek eragin txarra dauka beraien osasunean eta beraien etxeko bakean.

Bizilagunek erakunde honetara jotzen dutenerako aspertuta egon ohi dira denbora luzean horrelako gogaipenak jasateaz, eta, baita ere, etsita ere egon ohi dira udal agintariak ez dutelako inolako neurririk hartzen arazo horiek konpontzeko.

Erakunde honek gai honi buruzko gomendio orokor bat osatu zuen 1991. urteari buruzko txostenean, "Establezimendu publikoetako zaraten arazoei buruzko azterketa juridikoa" izenburuko atal batean. Bertan, arazo horretan nahastutako hiru aldean ikuspegitik aztertu ziren arazo horiek. Horrela, kutsadura akustikoak sortutako arazoak aztertzean, kontutan hartu ziren bai bizilagunen ikuspegiak, bai establezimenduetako titularren arazoa, eta bai administrazioaren iharduera ere.

Gainera, gai honetan aplika daitekeen araubide juridikoari buruzko azterketa zabal bat ere egin zen, alor honetako eskumenak administrazio desberdinen artean nola banatuta dauden zehaztuz, eta epai sorta bat erantsiz, haietako batzuk ezagunak. Gure iritziz, epai horiek lagungarriak izan litezke, batez ere, beraien zigortzeko ahalmenak erabili behar dituzten administrazio batzuentzat, iharduera sailkatuei buruzko gaur egungo arauketan dauden legezko hutsune batzuk betetzeko.

Ondorioen atalean, gogoeta moduan, halako gomendio batzuk eskaini genituen kutsadura akustikoaren arazoari heltzeko, apostu eginez ekintza administratiboak arazo honen arabera egokiena den maila instituzionaletik egin daitezkeen. Fenomeno hau batez ere hirietan gertatzen denez gero, pentsatu genuen udalek hartu behar zutela beren gain eskumen honen zati handi bat, bai eta, ondorioz, zegokien erantzunkizuna ere, eta beraz, irizpide eta helburu bezala izan behar zutela hirietako antolakuntza planetan jasotzea hirietako kutsadura akustikoa murriztu beharra.

Azkenik, iharduera sailkatu horiei buruzko arautegi tekniko eta prozedurazkoaren aplikazioa eta egunerapena beharrezkoa zela kontutan izanda, Autonomia Erkidegoko erakundeei, Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari dei egin genien, araugintza ahalmena duten erakundeak izanik, establezimendu publikoen eta kutsadura akustikoaren arauketa osa zezaten; ildo horretatik, gure erakundearen aburuz, helburu horretarako erabil zitekeen bide juridikorik egokiena iharduera sailkatuei buruzko lege bat zen, bai eta, haren osagarri gisa, kutsadura akustikoaren arazoa erregulatzeko arautegi bat ere.

Gomendioak gomendio, erakunde eskudunek ez dute oraindik eskurik hartu kutsadura akustikoa ikuspegi orokor batetik arautzeko; horregatik, oraingoan ere azpimarratu nahi ditugu irregulartzat jotzen ditugun egoera batzuk, ostalaritza alorreko establezimendu publikoen funtzionamenduak eragindako arazoekin eta,

zehazki, lokal horietako musika aparailuen abusuzko erabilerarekin zerikusia duten kexa espedienteak tramitatzean aurkitu ditugunak.

Honi gagozkiolarik, esan dezakegu iharduera horien funtzionamendu okerraren ondorioz sortzen diren zaratak isolamendu akustikorako neurri zuzentzaileak ez betetzeagatik gertatzen direla, nahiz eta establezimenduko iharduerarako baimenean baldintza bezala agertu.

Horrela, foru aldundien ingurugiro sailek edo eskumen hori beren gain hartua duten udalek egiten dute lokal horien sailkapena, eta horretarako lokala insonorizatzeraz behartzen dute indarrean dagoen arautegian onartutako gehienezko dezibelio maila ez gainditzeko, maila hori desberdina izanik iharduera bakoitzaren arabera. Bestalde, IGOKAko 34. artikulua arabera, iharduera bati ezin zaio baimena eman harik eta funtzionario teknikari eskudunak dagokion bisita egin eta iharduera horretan instalaziorako baimenean ipinitako neurri zuzentzaileak betetzen direla egiaztatu arte. Hori hala izan arren, erakunde honetan egiaztatu ahal izan dugu askotan ikuskapen hori egin gabe irekitzen direla era horretako establezimenduak, eta geroago zehazten dela, ondoko auzokoan salaketak aurkeztu ondoren, lokal horietan ez direla betetzen instalatzeko baimenaren arabera isolamendu akustikorako beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak.

Udal askotan ez zaie behar hainbateko garrantzia ematen establezimendu publikoak ikuskatu eta kontrolatzeko betekizunei, eta, ondorioz, ez diete behar bezalako arreta ematen, ez eta horiek zuzen gestionatzeko behar diren giza eta material mailako baliabideak eskeintzen ere. Nolanahi ere, egia da azkenaldi honetan gauzak hobetuz doazela, udalbatzarrak gero eta gehiago ari direlako esparru honetaz arduratzen.

Frogatzen bada establezimenduen isolamendu akustikoak ez duela betetzen emandako instalazio baimenak agindutakoa, irregulartasun hori konpontzeko, IGOKAko 36. artikulua dioen bezala, udalek iharduera horien titularrei esijitu behar diete aurkitutako okerrak zuzendu eta lokala insonorizatzeko neurriak har ditzaten, hilabete bat eta sei hilabete arteko epea emanaz horretarako.

Dena den, batzuetan ez da lan erraza izaten zenbait ostalaritza establezimenduren kontrola egitea, batez ere lokalaren insonorizazioa egokia dela egiaztatu arren aldameneko etxebizitzetan soinu-gogaienak jasaten jarraitzen dutenean. Bada, puntu hauxe azpimarratu nahi dugu hemengo gomendio honetan.

Kasu hauetan frogatuta dago zarata horiek zerikusi zuzena dutela musika aparailuen potentziarekin, eta arazoa gehienbat aparailua erabiltzen duen pertsonaren jarreraren baitan dagoela, lokalak daukan insonorizazioaren baitan baino areago. Zentzu honetan, nahiz eta halako establezimendu batean instalaziorako baimenak eskatutako isolamendu akustikoa eduki, musika aparailua erabiltzean lokalak jasan dezakeen soinu maila gainditzen bada, bistan da onartutako gehienezko zarata maila ere gainditu egiten dela, eta horrek gogaienak eragingo dizkiela lokalaren ondoan bizi diren pertsonen.

Esanak esan, establezimenduetako titularrek musika aparailu horiek manipula ez ditzaten, etxebizitzatarako hiri-lurrean gertatzen diren iharduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko arau tekniko orokorrak onartzen

dituen ekainaren 11ko 171/85 Dekretuko 1. kapituluaren 1. ataleko 3.2.4. artikulua hauxe dio:

“Musika-apailuz irratia, telebista-apailuak eta musika-haria izan ditzaten ekitzapidetan, kalkuloak tegiaren ezein tokitan 75 dB(A) daudela eginda izango dituen zaratagabetze-egitasmo bat aurkeztu beharrezkoa izango da, tegian ate bikoitza ez jarri behar izateko lurlean lotzea hotsari dagokionean maila horretantxe eginez. Esandako hoietzaz bestelako musika-apailuak izan ditzaten ekitzapideen zaratagabetze-egitasmoak tegi barruan gutxienez 90 dB(A) daudela jota egingo dira.”

Bestalde, arau horretxetako 2. kapituluaren 1. ataleko 3.2.4 artikulua hauxe dio, pub, disko-taberna, dantzaleku eta abarrei aplikagarria den esaldi honetan:

“Zaratagabetze-egitasmo bat aurkeztea, diskategi eta horrelakoetan kalkuloak 100 dB(A)-ko zaratarentzat, eta “pub” eta horrelakoetan 90 dB(A)-koarentzat eginda, tegiaren beraren azpiirozgarria hots-maila horretarakoxe eginez.”

Zentzu honetan, aurreko arau horietan esandakoaren ildotik, uler daiteke musika aparailuari soinu muga bat ipintzea beharrezkoa dela, eta horretarako potentzia mugatzeko tresna jarri behar zaiola, establezimendu horiek daukaten aparailua irratia, telebista edo hari musikala denean izan ezik.

Puntu horri dagokionez, gure Autonomia Erkidegoan azken urteotan udalek onartu dituzten establezimendu publiko eta aisialdi iharduerak arautzeko udal ordenantza desberdinak aztertzean, ikusi ahal izan dugu haietako gehienetan ostalaritza establezimenduetako musika aparailuetan potentzia mugatzeko tresnak ipini beharra jartzen dutela neurri zuzentzaile bezala.

Adibide gisa, zentzu honetan oso argigarria delako, Lekeitioko Ostalaritza Establezimenduen eta Baliokidetuen Arauketarako Udal Ordenantzaren soinu iturrien kontrolari buruzko 8.2.1 artikulua ekar dezakegu hona (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 301. zkia., 1992ko abenduaren 31koa); hitzez hitz hauxe dio:

“Zarata-iturri ezberdinek emititzen dituzten hots mailak bermatzeko, edozein iharduerak bere barnean megafoniazko musika-aparailuak, ikus-entzumenezkoak, etab... jarrita dituenen, Zabaltzeko Lizentzia lortu aurretik, Frekuentzien bidezko isolamendu osoa ziurtatu beharko du. Honetarako, zarata-iturri bakoitzean instalatutako prezinto edo anklaia sistemari buruzko U.N.E. 74-080-84 araua beteko da eta honen hots-mailak ez du gaindituko talde bakoitzari dagokiona. Tekniko kompetenteak izenpetuko du honi buruzko ziurtagiria.

Udal Zerbitzu Teknikoak gai dira iharduera bakoitzak sartuta dituen hots-mailen kontrolerako sistemak onartzeko edo ukatzeko. Bi eratakoak dira onartu direnak:

- Mekanikoak
- Elektronikoak

Hauetako sistemaren bat onartzen denean, prozedura justifikatu eta prezintoa kontrastatu beharko da, aipatu Zerbitzu Teknikoen esku geratzen delarik unitate hauetan parte hartzeko eskubidea eta hauen funtzionamenduaren egiaztatzea.”

Era berean, Debako taberna, kafetegi eta antzekoen iharduerako establezimendu publikoen instalazioa arautzen duen Udal Ordenantzako 10. artikuluan (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 41. zkia., 1993ko martxoak 3) ere esaten da soinu erreproduziorako edozein sistemak “zarata-mugapen eraginkorra” eduki behar duela, bolumen mailarik altuenean egonda ere halako zarata maila bat sor ez dezaten lokalaren barruan, establezimenduaren sailari dagokionaren arabera, horretarako udal funtzionarioek egingo dutelarik zarata-mugapen hori.

Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretuan bildutako aginduei buruz puntu honetaz egiten zen ulerbidearen arabera pentsa daitekeen arren musika aparailuen zarata-mugagailuaren instalazioa esiji daitekeela iharduerako baimeneko neurri zuzentzaile bezala eta horrela jasotzen dutela udal ordenantza batzuek -esan dugun bezala-, hala ere, udal batzuek teknikoaren borondatearen baitan uzten dute musika aparailuen zarata-mugagailua ipini behar hori; hori da, adibidez, Bilboko Ingurugiroaren Babeserako Ordenantzaren kasua (BAO, 267. zkia., 1992ko azaroaren 19koa) edo Getxoko zarata eta dardarei buruzko Udal Ordenantzarena (BAO, 159. zkia., 1992ko ekainaren 11koa).

Esanak esan, frogatu ahal izan dugun bezala, ia udal guztiak ari dira esijitzen gaur egun musika aparailuei zarata-mugagailu edo zigilua ipintzea, dagozkion potentzia-mugagailuen bidez, instalaziorako baimenaren neurri zuzentzaile bezala, edo zigor neurri bezala, aldameneko etxebizitzetara iristen diren zaratak musika aparailuen erabilera okerragatik sortuak direla egiaztatu ondoren.

Horri dagokionez, Arartekoak gogorarazi nahi du udal ordenantzek paper oso garrantzitsua jokatzen dutela gai honetan, oso arau gutxi dagoelako alor honetan. Ordenantza horietan soinua neurtzeko prozedurak arautuz, zarata eta dardar neurriei kontzeptu eta unitateak zehaztuz, titularren lizentzia eskarian aurkeztu behar dituzten insonorizazio proiektuen edukia argituz eta mugapenak eta eskakizun berriak sartuz, halako babes bat ematen zaie hiritarrei arauak hausteagatik gerta daitezkeen ondorio txarren aurrean.

Honetaz ari garenez, ez dugu esan gabe utzi nahi gaur egun Estatuko udalerrri batzuetan eskatzen ari dela halako sistema sonografiko bat ipintzea gauze irekita egoten diren establezimenduetako musika aparailuetan, haien ihardueran gerta daitezkeen irregulartasunak zorrotzasun handiagoz zehazteko aukera ematen duena eta, gainera, leku horietan eragiten diren zaratak kontrolatu eta ikuskatzeko lana errazten duena.

Zentzu honetan, Donostiako udalerrian soinu emisioa eta harrera arautzen duen Ordenantzaren zirriborroan -esandako udalbatzarrak eskuratu digu-, ikusi dugun bezala neurri hori esijitzen da derrigorrez. Sistema sonografikoaren instalazioa egin beharra jartzen duen agindua interesgarria iruditu zaigu eta horregatik hemen ematen dugu hitzez hitz, sistema horrek eduki behar dituen gutxienezko baldintzekin batera:

- “1- Gaez irekita dauden establezimenduetako musika aparailuak dauzkaten iharduerak ikuskatu eta kontrolatzeko lana eraginkortasun handiagoz egin ahal izateko, derrigorrezkoa da horietan erregistro sonografikorako sistema bat ipintzea, hamabost eguneko gutxienezko epeko ihardueraren funtzionamenduari buruzko datuak eskuratu ahal izateko. Sistema hori erabilitako soinu-mugagailuan integratuta egon daiteke edo ez.
- 2- Sistema horrek honako gutxienezko baldintzak bete behar ditu:
- Iharduerako funtzionamendu zaratatsuaren denbora erregistratzea eta biltzea, eguna eta hasierako eta bukaerako ordua adieraziz, epeko gehienezko minutu baten adinako maila eta hori gertatzen den ordua, eta azkenik epe horretako bataz besteko mailak.
 - Soinu iturrien funtzionamendu denborak erregistratzea eta biltzea, piztu eta itzaltzen den egun-orduak zehaztuz, bai eta soinu erreproduziorako sistemaren errendimendu energetikoa ere, erabilera egokia egiten dela frogatu ahal izateko.
 - Aurreko puntuetan adierazitako informazioa gordetzea halako epe batean, geroago haren ikuskapena egin ahal izateko.
 - Udal zerbitzu teknikoei edo ordezeko erakundeari esandako informazio hori eskuratzeko aukera emango dion sistema edukitzea, ikuskapen zerbitzuaren sistema informatikoetara eraman eta han aztertu eta ebaluatu ahal izateko, inprimaketa ere onartuz. Datu eskurapen horrek ezin du datuen suntsipena eragin, ez eta haien manipulazioa onartu ere.
 - Azkenik, sistema horrek ‘setup’ delakoaren manipulazioa ekiditeko behar diren babes osagaiak eduki behar ditu, giltza elektronikoko edo sarrera-gakoen bidez.”

Neurri hori oraindik esperimentazio aldian dagoen arren, egokia iruditzen zaigu udal ordenantzen bitartez kontrolbide berriak sartuz joatea administrazio xedapenei objektibotasun handiagoa emateko eta haien aginduak betetzen direla bermatzeko.

Alor honetako ordenantzen garrantziaz ohartarazi ondoren, hasieran azaldutako arazoari berriro helduz, esan genezake era honetako iharduera sailkatuen funtzionamenduaren eraginez auzokoei jasan behar izaten dituzten zaratak erraz konpon litezkeela egiaztatzen bada iharduera horien isolamendu akustikoa egokia dela eta zarata eragin dezaketen soinu-iturriek behar bezalako zarata-mugapena dutela.

Dena dela, alor honetan aditu diren teknikariek diotenez nahiko erraza da gaur egun potentzia mugatzeko merkatuan dauden tresnak manipulatzeko. Era berean, kexa espedienteak tramitatzean ikusi ahal izan dugu ostalaritza establezimenduen titularren maltzurkeria urrutirago iristen dela, batzuetan behar bezalako soinu-mugagailua edo zigilua daukan musika aparailuaren ordezkari bat ipini dutelako.

Kasu horietan, iharduera horren funtzionamenduan irregulartasuna gertatzen ari dela frogatu ahal izateko, beharrezkoa da une horretan kaltetutako auzokoei salaketa aurkeztu eta dagokion ikuskapen bisita egitea.

Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako hiru hiriburuetan Udaltzainak egin ohi dituen soinu neurketak; zehazki, Donostian badago unitate berezi bat, UCOM deitzen dena, Udaltzaingoaren mendekoa, ikuskapen horiek eguneko edozein ordutan egiteko, baita premiazkoa denean ere.

Egia da establezimendu publikoen instalazioa arautzen duten udal ordenantza gehienetan bermatu egiten dela haien aginduak ziurtatzeko beharrezkotzat hartzen diren ikuskapenak “edozein unetan” egitea, horretarako Udaltzaingoan prestatuta dauden agenteak erabiliz zaraten kontrola egiteko; alabaina, zer gertatzen da halako udalerrri batean Udaltzaingoak gaueko 22etatik aurrera lan egiteari uzten badio, eta udalerrian ez badago inolako unitate teknikorik gaueko orduetan era horretako soinu neurketak egiteko, nahiz eta arauetan ikuskapenak egiteko posibilitatea behar bezala jasota egon?

Gure erakundeetan, askotan esan diegu arazo hauek jasaten dituzten hiritarrei salagarri diren ekintzak gertatzen diren unean bertan parte eman behar diotela toki agintariari, lekuan bertan dagokion soinu neurketa egin ahal izateko. Horrelakoetan, hiritarrek erantzun digute Udaltzaingoak ez duela erantzuten eta Ertzaintzaren komisaldegietara jotzen dutenean esaten omen diete ikuskapen horiek ez direla beraien eskuduntza, toki agintariei baitagokie kontrol ahalmen hori.

Izan ere, Euskadiko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 117. artikulua dioenez, toki entitateek Ertzaintzaren partehartzea eska diezaiokete Herrizaingo Sailari polizi alor hutsekoak diren betekizunetarako, eta haien laguntza bakarrik beraien eskumenekoak diren zerbitzuetan, baina ez ordea era iraunkorrean. Hortaz, argi dago era honetako iharduerak ikuskatu eta kontrolatzeko ardura udalbatzarrei dagokiela.

Nahikoa da gogoan izatea establezimendu publikoek udal baimena eduki behar dutela eta, beraz, udalaren eskuhartzea ez dela bukatzen ihardueraren hasierarekin, baizik eta establezimendu horiek etengabe ikuskatu eta zainduak izan behar dute toki agintarien aldetik, haien itxiera agintzeraino ere, beharrezkoa bada. Horrek aukera ematen du iharduteko lizentziako neurri zuzentzaileak betetzen direla etengabe aztertzeke, eta horrela ziurtatu egiten da hiritarrak babestuta daudela iharduera horien funtzionamendu okerragatik gerta litezkeen gogaipen eta ingurugiro-erasoen aurrean.

Labur esanda, udalerriek garbi eduki behar dute, indarrean dauden legeen arabera, ihardueren segimendua, ikuskapena eta kontrola egitea udalerriek derrigor bete beharreko beste zerbitzu bat dela, oso garrantzitsua gainera kaltea jasaten duten hiritarrentzat, zeren eta hiritar horiek gutxi balira ere, arazoak kualitatiboki garrantzi berbera edukiko bailuke, zaraten gogaipenak oso deserosoak eta desatseginak izaten direlako kaltea jasaten duten hiritarrentzat.

Ildo horretatik, Arartekoaren ustez pertsonal gaitua behar da ostalaritzako establezimendu publikoen funtzionamendua ikuskatzeko; orobat, bitarteko material egokiak ere behar dira, eta horiek egoera onean egon behar dute beti;

azkenik, beharrezkoa da, baita ere, kontrol ekintza horiek edozein ordutan egiteko -ganean eta goizaldean bereziki- prestatutako pertsonala edukitzea.

Baldintza horiek nekez bete ditzakete ikuskapen horiek gaueko orduetan egiteko pertsonalik ez daukaten udalek, ez eta prestakuntza tekniko nahikorik edo neurketa aparailu egokirik ez daukatenez ere. Horrekin esan nahi dugu prestakuntza horrek etengabeko praktika eskatzen duela, eta ez dela nahikoa jakitea nola funtzionatzen duen sonometro batek, baizik eta ikuskapen zeregin horiek teknikoki konplexuagotzat hartu behar direla.

Zentzu honetan, kontuan izan behar da soinu neurketa baten ondorioz zigor bat ezartzea gerta daitekeela, ihardueraren bermezko itxiera adibidez, eta beraz establezimendu horien titularren eskubideak bermatzeko beharrezkoa dela neurketa horiek zuzenak izatea.

Horregatik guztiagatik, azterketa honetan isuri ditugun gogoeten ildotik, kontuan izanik beharrezkoa dela toki administrazioek ahalik eta lasterren jarrera irmoa hartzea eta ahalegin etengabea egitea zaratek hiritarrei eragiten dizkieten ondorio deseroso eta kaltegarriak gutxitzeko, Arartekoak gomendatu egiten die udalei langile aditu eta gaituak har ditzatela edota beren pertsonala treba dezatela zaraten ikuskapen eta kontrola egin ahal izateko.

Orobat, ikuskapen zerbitzu hori emateko gaitutako pertsonalik ez daukaten toki erakundeen kasuan, proposatzen dugu betekizun hori egiteko zerbitzu alokerako kontratu bat egitea alorrean espezializatutako enpresa batekin, udal pertsonalak zerbitzu hori ematen ez duen bitarteko denboran soinu neurketak egiteko.

7.6. ZABORRA ORDUTEGITIK KANPO ATERATZEAGATIK, KALE-GARBIKETA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZEN AGINDUA HAUTSI DUTENEI EZARRITAKO ZIGOR ESPEDIENTEAK, EGILETASUNA ETA ERRUGABETASUN USTEA

Aurreko urteetan, zenbait hiritarrek kexa helarazi diote erakunde honi, zaborra ateratzeko ordutegiei dagokienez kale-garbitetari buruzko udal ordenantzen aginduak hausteagatik zigortuak izan direlako, horretarako froga bakar bezala zabor poltsetan haiei buruzko dokumentuak aurkitu ondoren.

Arartekoari azaldu zaizkion arazoetan, gure erakundearen iharduerak beti izan du ondorio bezala halako gomendio bat egitea, eskumena duen udal agintariari eskatzearen emandako zigor erabakiak bertan behera uztea. Gaur arte, egin ditugun era horretako eskariak beti ontzat hartu izan zaizkigu, haietan azaldutako arazoibideetan oinarrituz.

Konstituzio Auzitegiak, aspaldiko ebazpenetatik hasita (KAre 1982ko apirilaren 1eko Epaia), argi ulertu du errugabetasun ustea funtsezko eskubidea dela eta aginte publiko guztiek men egin behar diotela edozein erabaki hartzerakoan, bide jurisdikzionaletik nahiz administratibotik. “*Zalantzarik ez,*